

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Gaikuntza nazionaleko (idazkari-kontuhartzailea) toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzea

Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48. artikulutik 51. artikulura xedatutakoaren arabera, jakinarazten da 2019ko apirilaren 1etik aurrera hutsik egongo dela Eltziegoko Udalaren idazkari-kontuhartzaile lanpostua, titularrak erretiroa hartuko baitu. Horiek horrela, bost egun balioduneko epea irekiko da gaikuntza nazionaleko zernahi funtzionarioek Eltziegoko Udalera bidalitako idazki bidez adieraz dezan interesa duela lanpostu hori aipatutako dekretuak 48. artikulutik 51. artikulura xedatutako legezko zernahi eraren bidez betetzeko.

Idazkia posta elektronikoko helbide honetara bidaliko da: aelciego@ayto.araba.eus.

Elciego, 2019ko otsailaren 6a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE